

Protokolo-fitxa:

Landare-diaren jarraipena.

Jarraipen programa hitz gutxitan.

Phénoclimen parte hartzea honako honetan datza: Landaretza urtaroetan zehar (udaberrian eta udazkenean) behatu eta garapenaren egoera desberdinen datuak hartu.

Gure zerrendako 13 espezieen artean, zuen etxetik hurbil eta sektore berean (500 metro inguruko erradioan) dauden 3 espezie aukeratu.

Espezien aukeraketa

Zerrendako 3 espezie aukeratu.



Pagoa

Urki-Ilandun

Urki-gorria

Izei

Otsalizar

Lila

Eztul-belar



Lizarra

Izei zuria

Pinu gorria

Laritz Europar

Hurritza

Udaberri lore

Hautatu especie bakoitzatik 3 ale.

Hautatutako espezie bakoitzerako, gutxienez 2 ale identifikatu behar dira, baina 3 izatea gomendatzen da:

Belar-landareei dagokienez, bilatu hainbat ale markatutako 1 m-ko 3 karratu barruan,

Zuen espezieak markatu.

Markatu aukeratutako landareak, urtaroetan eta datorren urtean, berriro aurkitu ahal izateko moduan.

Jarri izen bat edo zenbaki bat bakoitzari.

Adibidez, zuhaitzaren oinarrian egurrezko hesola txiki bat jar dezakezue, dagokion zenbakiarekin. Edo enborrean pintura-orban diskretu batekin markatu.

Erregistratu zuen landareak web-orriko espazio pertsonalean

Phénoclimen parte hartzeko, www.phenoclim.org webgunean, kontu bat sortu behar duzue. Horretarako, klikatu Nire kontua erlaitzean.



Inskripzio horri esker, zehatz-mehatz deskriba dezakezue zuen azterketa-eremuaren aukeratutako espezieen kokapena.

Izena eman ondoren, zuen e-mailera jasoko dituzuen identifikatzaileak eta pasahitzak zuen espazio pertsonalera sartzeko aukera emango dizuete, nire kontuaren gainean klik eginez.

Inskripzioari eta azterketa-eremuaren eta landaren deskribapenari buruzko azalpen zehatzagoa emateko, [Youtubeko tutorialak](#) ikusi.

Zuen behaketak:



Udaberrian eta udazkenean, astean behin bisitatu zuen landareak.

Begiratu zuen espezieei, eta estadioren batera iristen direnean datuak hartu eta data idatzi.

Estadioren bat ikusten ez bada, bereizi honako hauek:

- "Bertaratu gabeko fasea", gertaera hori aurten gertatu ez bada.

- "Gainditutako estadioa", behaketak egin ezin izan badituzue eta estadioa jada gertatu da (oporreragatik, ahanzturagatik).

- "Hildako edo desagertutako alea", zuhaitza jada existitzen ez bada (ekaitza,

mozketa, zuhaitz hila). Kasu honetan, zuen azterketa eremua aukeratu zonaldeko beste ale berri bat hura ordezteko. Adi: izendatu haule berri hau, aurreko indibidua ez bezalakoa (Adibidez, 4. zuhaitza).

Kontuan izan urte batzuetan fase fenologiko jakin bat ez dela gertatzen. Adibidez, Lizarrak ez dira urtero loratzen. Kasu honetan, idatzi "falta den estadioa".

Udaberrian

Behaketak egin landaretza esnatzeko lehen seinaleak agertzen direnean.

Hiru fase behatu behar dituzue: ernamuina, foliazioa eta loratzea.

Adi: Fase ezberdinak espezieen arabera aldatzen dira.

Espezie bakoitzaren fase fenologikoen kronologia zehatza ezagutzeko, kontsultatu egutegia.

ERNAMUINA

Ernamuina begetatiboen (ostoen formatzen direnak) eklosio honi dagokio ernamuina.

Osto berriak ernamuin ezkatetaen artean ikus daitezke.

Ernamuina fasea idatzi, zuhaitzaren ernamuinen % 10 irekitak daudenean.



FOLIAZIOA

Foliazioa orri berriak irekitzeari dagokio.

Hostoa erabat irekitzat hartzen da, bekioloa (hostoaren buztana) itxurazkoa denean eta forma ezagutu daiteke hostoak helduaren tamaina ez duenean ere.

Idatzi foliazio-fasea zuhaitzaren hostoen % 10 osatuta daudenean.

Koniferoetan, azikula gazteak ernamuin oinarrian lotuta daudenean baina muturretik banatuta daudenean jotzen da estadio hori.

LORATZEA

Loratzea loreen irekierari dagokio.

Lorea ireki dela, petaloak irekia direnean eta lorearen barrukoa ikusi ahal dugunean, esan ahal dugu.

Loreen %10 irekita daudenean, idatzi loratze-estadioa.

Loratzea ezberdina da espezieen arabera.

Lilorako, otsalizar eta lizarrarentzat idatzi infloreszentziaren (non aurkitu ahal dugun lora arrak eta lore emeak) lehen lorea irekitzen denean.

Hurritzar, urkia, izei gorria eta laritz europarrentzat, idatzi lore maskulinoetatik (Pinaburuak) polena askatzen denean.

Zuen espezieetan behatu beharreko faseak zehatzago ezagutzeko, kontsultatu landare-espezieen fitxa dokumentua. Bertan, espezie bakoitzerako fitxa zehatza aurkituko duzue.

Udazkenean

Behaketak egin lehen hostoak kolorez aldatzen direnean. Bi fase behatu behar dira: kolore-aldaketaren hasiera eta erdia.

Espezie bakoitzaren fase fenologikoen kronologia zehatza ezagutzeko, kontsulta ezazue egutegi indikatiboa.

Kolore aldaketaren hasiera.

Idatzi zuhaitzaren lehen hostoak hau da, hostotzaren % 10 inguru, kolorez aldatu diren data.



Kolore aldaketaren erdia

Idatzi zuhaitzaren hostoen erdiak, hau da, %50 inguruk, kolorea aldatu duten data.

Adi: bi kasuetan, Lurrera erori direnak ere kontuan hartzen dira neurtutako ehunekoan, hostotzaren bezala kontuan hartzen da eta.

Nola idatzi eta partekatu nire behaketak

Behin zuen behaketa eginda, funtsezkoa da azkar jakinaraztea.

Android mugikorraren aplikazioarekin



Mugikorraren aplikazioak zuen datuak sartzeko aukera ematen dizue zuzenean behaketako eremutik, Tableta edo Smartphon laguntzarekin.

Lekuan bertan datuak sartzeko, behatu behar diren faseen argazkiak erantsi dira, zuek gidatzeko.



Interneterako konexioa duzuenean, zuen smartphonearen eta web artean sinkronizatu zuen datuak, bai zuen behaketak sartu aurretik bai sartu ondoren, zuen gailuan datu guztiak eguneratuta izateko.

Web orriaren bidez

Lekuan bertan egin dituzuen behaketak egin ondoren, zuen espazio pertsonalera konektatu, klik eginez www.phenoclim.org "nire kontuan" atalean.

Zuen datuak "sartu nire oharrak" erlaitzean klik eginez sartu. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu "Sartu nire oharrak" tutoriala.

Ikus eta konparatu zuen behaketak beste behatzaile batzuenekin erraz erabiltzeko diren modulu interaktibo bidez "Landareen behaketak" orrialdean.